

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Asturias eta Vianako printze-printzesak Fitur azokako Nafarroaren standa ikustera joan dira

Foru Erkidegoak gazteluen eta gotorlekuen ibilbidea eman du ezagutzera turismoaren nazioarteko azokan

Miércoles, 18 de enero de 2012

Asturias eta Vianako printze-printzesa berorren gorentasunek [Turismoaren Nazioarteko Azokako \(FITUR\) Nafarroaren standera](#) egin dute bisita gaur goizean. Azoka gaurtik datorren igandera arte (urtarrilak 22) egingo da Madrilgo Juan Carlos I azoka-barrutian.

Foru Erkidegoaren erakusmahaira egin duten bisita dela-eta, Carlos Erce Eguaras Turismo eta Merkataritzako zuzendari nagusiak Erriberriko gazteluaren irudi historikoen erreproduzio bat eman die. Oparia Nafarroako standak azokan daukan erakargarritasun nagusietako bati lotuta dago, gazteluen eta gotorlekuen ibilbidearen aurkezpenari alegia.

Nafarroako Monumentuen Batzordeak, Erriberriko gaztelua babeste aldera, San Fernando Arte Ederren Errege Akademian aurkeztu zituen irudien erreproduzioa azaltzen duen argitalpena da.

Irudiak aurkezteari esker, Erriberriko gaztelua XIX. mendearen bigarren erdialdeko hondamenditik babestu zen. Irudi originalak Iturralde y Suit arkitektoak egin eta Madrilgo Lázaro Galdiano fundazioak zaindu zituen. Horrez gain, irudiek Vianako Printzea fundazioak Erriberriko gaztelua leheneratu eta osorik berritzeko ere balio izan zuten hainbat hamarkada geroago.

Erriberriko gaztelua Nafarroako Karlos III.a Prestuak XV. mendearen hasieran eraikitako errege-jauregia da. Erregea han bizi izan zen. Europako Erdi Aroko jauregien artean luxu handienetarikoa duena da.

Gazteluen ibilbidea, 2012rako berritasuna

Nafarroako gazteluen eta gotorlekuen ibilbidea Fitur azokan Foru Erkidegoak duen standeko erakargarritasun nagusia da. Ibilbide turistikoa eta kulturala da, bertako historia ezagutzen laguntzen duena. Izan ere, Nafarroaren historian giltzarria diren bi gertakizunen mendeurrena



Carlos Ercek Asturias eta Vianako printze-printzesei oparia eman die Fitur azokako Nafarroaren standa ikusteko egin duten bisitan

ospatzen da: Navas de Tolosako bataila (1212) eta Nafarroak Gaztelako koroarekin bat egin zueneko urtea (1512).

Bi efemeride horiei lotuta, "Nafarroa 1212-1512-2012" lelopean, hainbat ekitaldi kultural antolatu dira (erakusketak, argitalpenak, hitzaldiak, kontzertuak, etab.) Foru Erkidegoan eta beste eskualde batzuetan.

Historian zehar gorabeherak izan arren, Nafarroan hogeit hamar bat gazteluk eta gotorlekuk bizirik iraun dute, eta, horri esker, Foru Erkidegoa iparraldetik hegoaldera zeharkatzen duen ibilbidea sortu da.